

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ligi-Atherei

Aurkibidea

Udalerria: Ligi-Atherei

Sarrera



Basabürüako ibarrezkerrean kokaturik dagoen udalerria da. Lurralde menditsuan dago. 1843. urtean Ligi eta Atherei herriak batu egin ziren udalerri bakarra osatzeko, eta ordudanik udalerri hauek dituzte mugakide: Liginaga-Astüe eta Lexantzü-Zunharre iparraldean; Etxebarre ipar-mendebaldean; Hauze ekialdean; Larraine hego-mendebaldean; eta Santa Grazi hegoaldean. Udalerriko ekonomia laborantzian dago oinarriturik. Udalerritik igarotzen diren uren kalitatea dela-eta, zenbait arrain-haztegi sortu dira bertan. Zuberoa osoa orokorrean eta bereziki Maule-Lextarre korrante elektriko hornitzen duen zentral hidroelektrikoa dago Ligi-Atherein.

- **Biztanleak:** 248
- **Euskaldunak:** %60,17

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Maddalen Casanave (1945)



Maddalen Olalainty sortzez, Casanave ezkonduz gero. Aguer etxean sortua. Ama, [Maite Olalainty](#), Aguer etxekoa zen, eta aita Joha e Olalainty, latxeta etxekoa, biak Atherei herrikoak. Ama Laborantzan ari zen, eta aita hargina zen. Familian, laborantza emazte istorio bat zen, gizonek etxetik kanpo lan egiten zutelako. Maddalen alaba bakarra izan zen. Edouard Casanavekin ezkondu zen, 1968an, eta lau mutiko ukan zituzten.

Maite Olalainty (1921)



Sortzez Maite Aguer, Aguer sortetxean jaioa. Aita, Jean Aguer, etxondokoa zen, eta ama Madeleine Sarrats zen. Aitaren anaia eta arreba Argentinara joan ziren, izebengana. Aita Lehen Mundu Gerran kolpatua izan zen, bizkar-hezurrean; ondorioz, ondotik ez zituen etxeko lan guziak egiten ahal. Mitil baten laguntza izan zuten orduan. 1944an, Athereiko Joha e Olalaintyrekin, latxeta etxekoa, ezkondu zen Maite, eta alaba bat izan zuten: Maddalen. Aguer etxean egon ziren. Ama-alabek baserria joanarazi zuten, eta aita hargina zen. Besteak beste, Bigarren Gerra Mundialeko istorioak bai eta lamina istorioak kondatzen ditu Maitek.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com